

Donostian, mila bederatzireun eta berrogeitamargarren urteko Epailaren ogeitamaikan, Ekauta-jauregian, Azkue jauna maipuru dala, batzen dira Urkijo, Elissalde, Etxalde, Irigarai, Krutwig, Lekuona, ta Oleaga Euskaltzainak, il onetako Euskaltzaindi-batzarra egiteko.

Araudizko otoitzaz emoten dako asiera.

Lenaurreko batzar-agiria irakurririk, ontzat artzen da.

Euskaltzain barrien sarrera aundikiro ospatzea erabagiten da. Onan-edo, egin leikez:

— Lekuona jaunarena, Iruñan Garagarril edo Errearoaren ogeita zortzian. Seminario jaunak erantzun dekió.

— Dassance jaunarena, Donostian, Uztailaren amalauan, Elissalde jaunak erantzunik.

— Lafon jaunarena, Baionan, Uztailaren amabostean, Krutwig jaunaren erantzumenaz.

Urrengo, Krutwig jaunak irakurten dau “Comentarios sobre la ortografía del Euskera” deritxon lan bat. Beronezaz oarrak eta eztabaidak sortu dira.

Azkenez, Oleaga Zadorlariak adierazoten dau Bilboko Erria-Epaikeri irugarrenak Euskaltzaindiari eskatu dautsala “Ondazilegi” itzak zer esan gure dauan, eta itaun oneri Euskaltzainburuak emon dautsan erantzupena. Onetsia izan da.

Beste barik era araudi-otoitzaz amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburua*  
Resurreccion M.<sup>a</sup> Azkue

*Zadorlaria*  
Nazario Oleaga